



BERGARAN EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2018-22 MOLDATZEKO PARTE HARTZE PROZESURAKO MATERIALAK

DOKUMENTU HONEN FUNTZIOA

Dokumentu hau lanerako baliabide bat da. Bergaran Euskara Biziberritzeko Plana egiteko parte-hartze prozesurako prestatu du Udaleko Euskara Zerbitzuak.

Planaren lanketarako lagungarri izan nahi du, besterik barik. Ez da dokumentu bukatu bat eta ezer ez da bertan behin betikoa.

Euskararen normalizazioarekin interesatuta dagoen edonork bere ekarpenak egitea du helburu:

- oraingo egoeraren indargune zein ahulguneen inguruan
- plana egitean izan beharko genituzkeen lehentasunen inguruan
- bideratzen ditugun edo bideratzen ez ditugun ekintzen inguruan...

Txostenaren laburpena

1.- EGOERA. DATU OROKORREN BILAKAERA, 1981-2011.	Bi zati nabarmen: 1981-2001 eta 2001-2011.
1.1. Gaitasuna,	1981etik 2001era euskaldunak 7 puntu igo; 2001etik 2011ra 4 puntu jaitsi.
1.2. Euskaldunen Lehen hizkuntza (etxean 3 urte aurretik ikasia).	Etengabe jaisten, baina jaitsiera erritmoa moteltzen: Euskaldunen 3/4k dira lehen hizkuntza soilik ikasi dutenak. Lehen Hizkuntza euskara izatea da euskaraz errazago egiteko faktore garrantzitsua.
1.3. Etxeko erabilera	1981-2001era egonkortuta %40 inguruan. 2001etik 2011ra 4 puntu jaitsi euskara hutsa eta 8 igo gaztelania hutsa.
1.4. Kaleko erabilera.	Oro har, igoera. Azken urteetan zenbait datu gorabeheratsu. Une honetan, %42-45 inguru.
2.- DATU XEHETUAK, BILAKAERA ADIN-TARTEKA 2001-2011.	
2.1. Gaitasuna	1981-2001. Haur eta gazteetan etengabe goraka. 20 urtez gorako ia denak euskaldunak. 2001-2010. Gazteetatik heldu gazteetarako gorakada moteldu. 30-40 urte bitartekoetan gorakada handia izan behar zuen eta gora egin du baina gutxiago. Beste adin-tarteetan jaitsi.
2.2. Lehen hizkuntza eta etxeko erabilera.	1981-2001. Gazteenetan (20-30 urtez azpikoetan) apurka-apurka goraka; besteetan murrizten. 2001-2011. Gazteetako berreskurapena eten edo moteldu. Salbuespen bakarra 30-40 adin-tartea.
2.3. Kaleko erabilera.	Etxeko erabilera baino handiagoa: <ul style="list-style-type: none"> - Haurretan egonkor, %60 pasatxoan. - Gazteetan, gorakada handia hainbat urtez baina azken urteetan gorabeheratsu. Batez beste, %45 inguruan. - Helduetan. Gorakada nabarmena zenbait urtez. %40 inguruan. - Zaharrak. Beheraka, %30-35 inguruan. Oraindik ere beheraka jarraituko du zertxobait.
3.- HAINBAT DATU AIPAGARRI PLANERA BEGIRA.	
3.1. Mende aldaketarekin joera aldaketa. Behar bestean erantzun ezin izan zaion fenomenoak: inmigrazioa.	2001ean EAEz kanpo jaiotakoak, 40 urtez azpikoetan %5-6. 2001etik aurrera nabarmen handitu, bereziki, haur, gazte eta heldu gazteetan. Planerako kontuan hartzekoak: <ul style="list-style-type: none"> - Zer egin gazte etorkinek gutxienez oinarrizko ulermen maila bat lor dezaten. - Nola indartu etxean euskaraz ikasiko ez duten etorkinen euskara maila?
3.2. Guraso gazteetan eta ume txikietan hobekuntza.	Kanpo eraginik izan ez balitz handiagoa izango zen baina kanpo eragin eta guzti ere hobekuntza izan da 30-40 urteko gurasoetan, adierazle guztietan: gaitasuna, etxeko erabilera... Ume txikietan ere bai. Planean oso kontuan hartzekoa: belaunaldi hori izan behar da normalizazioaren motor.
3.3. Gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren eta etxeko	Haur eta gazteetan %90 inguru dira euskaldunak. Aldiz, euskara hutsa lehen hizkuntza dutenak %50 inguru eta

erabileraren arteko jauzia haur eta gazteetan.	etxean beti euskaraz egiten dutenak %40. Horrek eragin nabarmena du ume horiek euskaraz egiteko duten erraztasunean.
3.4. Kaleko erabilera, genero ikuspegia: Mutil gazteetan ahulgunea.	Guztira, emakumeek gehiago erabiltzen dute baina zaharretan ez dago alderik eta helduetan ere ez handia. Haurretan 10 puntu inguru eta gazteetan aldea 20-25 puntu ingurukoa da. Ahulgune nagusia: mutilen erabilera apala.
3.4. Elebidun hartzaile multzo zabala.	25-64 urte bitartekotan %19 dira elebidun hartzaileak. Planerako erronka: multzo zabal hori <i>Belarriprest</i> bihurtzea.
4.- PLANGINTZALDI BERRIKO LEHENTASUNAK FINKATZEKO IRIZPIDEAK	
a1) Erabilera indartzea da lehentasuna	Dakitenek euskaraz egitea da lehentasuna. Hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimenak bideratzea, ohiko hizkuntza euskara izango den guneak sortzea, euskaraz egitea gizarte-arau izango den guneak.
A2) Euskal elebidunak sortzea helburu. Ahozkoa lehentasun.	Euskal elebidunak dira euskaraz gaztelaniaz baino hobeto egiten dutenak. Horietan %98ak erabiltzen du euskara gaztelania beste edo gehiago. Hizkuntzaren normalkuntzarako oso garrantzitsua da euskal elebidunen % altua izatea. Ditugun erabilera-guneak birmoldatu eta aberastu egin behar ditugu ahozko erabilerari leku handiagoa emateko.
A3) Gazteak eta gazteekin harremana duten helduak dira lehentasun.	Euskararen hazkundea gazteetatik etorri behar du baina arreta berezia jarri behar da gazteekin harreman handia duten helduekin: guraso, begirale, irakasle...
A4) Denbora oso faktore garrantzitsua da.	Hizkuntza behin eta berriz erabiliz aberasten da. Bizitzan denbora tarte handiena hartzen duen hura da euskararako era lehentasuna.
A5) Mundu ludikoa. Bizipen positiboak.	Harremanetan gauden hizkuntza orok sortzen ditu hitzunarengan bizipenak. Hala ere, bizipenok izan litezke positiboak edo negatiboak. Berebiziko garrantzia du euskara bizipen positiboekin lotzeak.


5.- 2018KO KUDEAKETA PLANEAKO EGITASMOAK.	
Azpimarragarrienak: egitasmo berriak direlako eta beste batzuetan orain artekoaren azterketa sakona egitea eta programa birdefinitzea eskatzen dutelako.	<ul style="list-style-type: none"> • Euskaraldia. Erabilera aktibatzeke nazio mailako egitasmoa. • Eskolaz kanpoko arloa euskalduntzeko egitasmo berria. • Udal barrurako plan berria. 2018-22 aldirako plan berria egingo dugu. • Irakaskuntza. <i>Berekin programa</i>, ikastetxeetan ikasgai guztietan ahozkoa indartzekoa. Aurten ikerketaren azken urtea. Hurrengo urteetarako ildoak finkatzea. • Euskara maila apalekoentzako errefortzuak. Programa ebaluatu eta berdefinitzea. • Auzoko programa. Programa birdefinitzea inmigrazioari sendoago erantzungo dion programa bat osatzeko.

1.- EGOERA. DATU OROKORREN BILAKAERA, 1981-2011.

<p>1.1. Hizkuntza gaitasuna: 2001-11 bitartean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskaldunak: - 4 puntu. • Elebidun hartzaileak (ulertzen dutenak): +3 puntu. • Erdaldunak: +1 puntu. 	<table border="1"> <caption>Literacy Rates (1981-2011)</caption> <thead> <tr> <th>Year</th> <th>Euskaldunak</th> <th>Elebidun hartzaileak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr><td>1981</td><td>63</td><td>9</td></tr> <tr><td>1986</td><td>66</td><td>12</td></tr> <tr><td>1991</td><td>67</td><td>10</td></tr> <tr><td>1996</td><td>69</td><td>10</td></tr> <tr><td>2001</td><td>70</td><td>11</td></tr> <tr><td>2006</td><td>68</td><td>12</td></tr> <tr><td>2011</td><td>66</td><td>14</td></tr> </tbody> </table>	Year	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak	1981	63	9	1986	66	12	1991	67	10	1996	69	10	2001	70	11	2006	68	12	2011	66	14				
Year	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak																											
1981	63	9																											
1986	66	12																											
1991	67	10																											
1996	69	10																											
2001	70	11																											
2006	68	12																											
2011	66	14																											
<p>1.2. Euskaldunen lehen hizkuntza (Etxean lehen 3 urteetan ikasia):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskaldunzaharrak (euskara bakarrik ikasi zutenak) gutxitzen, nahiz eta jaitsiera erritmoa moteldu egin den. Logikoa da jaitsiera lehen hizkuntza euskara zutenen ehuneko handiena zaharretan zegoelako. • Beste laurdena, etxean gaztelania hutsa ikasitakoa edo biak ikasitakoa. <p>Lehen hizkuntza faktore garrantzitsua da gaitasunerako eta erabilerarako. Lehen hizkuntza euskara hutsa izatea gaitasun hobea izatearen aldeko faktore nagusietakoa da.</p>	<table border="1"> <caption>First Language (1986-2011)</caption> <thead> <tr> <th>Year</th> <th>Euskaldunzaharrak</th> <th>Jatorriz elebidunak</th> <th>Euskaldunerriak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr><td>1986</td><td>86</td><td>8</td><td>8</td></tr> <tr><td>1991</td><td>86</td><td>10</td><td>10</td></tr> <tr><td>1996</td><td>80</td><td>14</td><td>14</td></tr> <tr><td>2001</td><td>77</td><td>15</td><td>15</td></tr> <tr><td>2006</td><td>75</td><td>18</td><td>18</td></tr> <tr><td>2011</td><td>74</td><td>17</td><td>17</td></tr> </tbody> </table>	Year	Euskaldunzaharrak	Jatorriz elebidunak	Euskaldunerriak	1986	86	8	8	1991	86	10	10	1996	80	14	14	2001	77	15	15	2006	75	18	18	2011	74	17	17
Year	Euskaldunzaharrak	Jatorriz elebidunak	Euskaldunerriak																										
1986	86	8	8																										
1991	86	10	10																										
1996	80	14	14																										
2001	77	15	15																										
2006	75	18	18																										
2011	74	17	17																										
<p>1.3. Erabilera: Etxekoa.</p> <p>“Beti euskaraz” egiten dutenen proportzioa 4 puntu murriztu da 2001etik 2011ra; gaztelaniarena 8 puntu igo.</p>	<table border="1"> <caption>Language Use at Home (1991-2011)</caption> <thead> <tr> <th>Year</th> <th>Euskaraz</th> <th>Bietara</th> <th>Gaztelaniaz</th> </tr> </thead> <tbody> <tr><td>1991</td><td>42</td><td>20</td><td>38</td></tr> <tr><td>1996</td><td>40</td><td>22</td><td>38</td></tr> <tr><td>2001</td><td>42</td><td>20</td><td>38</td></tr> <tr><td>2006</td><td>40</td><td>20</td><td>40</td></tr> <tr><td>2011</td><td>38</td><td>15</td><td>47</td></tr> </tbody> </table>	Year	Euskaraz	Bietara	Gaztelaniaz	1991	42	20	38	1996	40	22	38	2001	42	20	38	2006	40	20	40	2011	38	15	47				
Year	Euskaraz	Bietara	Gaztelaniaz																										
1991	42	20	38																										
1996	40	22	38																										
2001	42	20	38																										
2006	40	20	40																										
2011	38	15	47																										
<p>1.4. Erabilera: Kalekoa.</p> <p>2001etik 2011ra igoera nabarmena izan zen. 2017ko datua 2011-15 urteetako batez bestekoa baino apalagoa da baina hala ere, 2001-05ekoa baino handiagoa.</p>	<table border="1"> <caption>Outdoor Language Use (1983-89 to 2017)</caption> <thead> <tr> <th>Year</th> <th>Percentage</th> </tr> </thead> <tbody> <tr><td>1983-89</td><td>37,4</td></tr> <tr><td>1991-95</td><td>38,7</td></tr> <tr><td>1996-2000</td><td>39,7</td></tr> <tr><td>2001-2005</td><td>40,5</td></tr> <tr><td>2006-2010</td><td>44,8</td></tr> <tr><td>2011-15</td><td>47,4</td></tr> <tr><td>2017</td><td>42,5</td></tr> </tbody> </table>	Year	Percentage	1983-89	37,4	1991-95	38,7	1996-2000	39,7	2001-2005	40,5	2006-2010	44,8	2011-15	47,4	2017	42,5												
Year	Percentage																												
1983-89	37,4																												
1991-95	38,7																												
1996-2000	39,7																												
2001-2005	40,5																												
2006-2010	44,8																												
2011-15	47,4																												
2017	42,5																												


2.- DATU XEHETUAK. BILAKAERA ADIN-TARTEKA, 1981-2011

2.1.- Gaitasuna.




Euskaldunak 1981-2001. Haur eta gazteetan etengabe goraka. Praktikan 20 urtez azpiko guztiak dira euskaldunak.

Euskaldunak 2001-2011. Gazteetatik heldu gazteetarako gorakada moteldu egin da neurri batean eta adin-tarte ia guztietan gutxitu da euskaldunen ehunekoa. Salbuespena, 30-40 adin-tartea, baina honetan ere gorakada motelagoa: %90 euskalduna izan behar zuen eta %75 inguru da.



Elebidun hartzaileak 1981-2001. Gazteetan murrizten eta gazte-helduetan gehitzen.


Elebidun hartzaileak 2001-2011. 35-60 adin-tartean %20 inguru da.




Erdaldunak 1981-2001. Haur eta gazteetan etengabe murrizten. 25 urtez azpikoetan ia ez dago.

Erdaldunak 2001-2011. Gazteetan jaitziera eten egin da eta 20-30 urte artekoetan gehitu dira, batez ere. 25-40 adin-tartean %18 inguru dira.


2.2.- Lehen hizkuntza. (etxean 3 urte aurretik ikasia)




Lehen hizkuntza euskara 1981-2001. Etengabe murrizten joan da baina hasita dago gazteenetan (20 urtez azpikoetan apurka-apurka goraka).




Lehen hizkuntza euskara 2001-2011. Gazteetan gertatzen ari zen berreskuratzea eten egin da. Adin-tarte guztietan murriztu da lehen hizkuntza.




Lehen hizkuntza biak 1981-2001. Gazteetan gehitzen. Hala ere, kopuru handiak izan gabe kasu guztietan.



Lehen hizkuntza biak 2001-2011. Adin-tarte geienetan gehitu da.




Lehen hizkuntza gaztelania 1981-2001. Etengabe murrizten haur eta gazteetan. 5-9 urtekoetan igoera handia.




Lehen hizkuntza gaztelania 2001-2011. 45 urtez azpiko adin-tarte gehienetan murriztu da, 40-44 eta 5-9 urtekoetan izan ezik. Guraso eta seme-alabak izango dira.


2.3.- Etxeko erabilera.




Etxean euskaraz 1991-2001. Heldu eta zaharretan murrizten; gazteetan goraka.




Etxean euskaraz 2001-2011. Adin-tarte guztietan murriztu da, 30-40 adin-tartean izan ezik.




Etxean bietan 1991-2001. 60 urtez azpikoetan gehitu egin da. Salbuespena, bereziki, 30-35 adin-tartea.



Etxean bietan 2001-2011. 65 urtez azpikoetan gutxitu egin da, praktikan adin-tarte guztietan.




Etxean gaztelaniaz 1991-2001. Murrizketa nabarmena haur eta gazteetan.



Etxean gaztelaniaz 2001-2011. Praktikan adin-tarte guztietan gehitu da. Salbuespen bakarra 30-40 urtekoak. Gehitzerik handienak zaharretan baina baita 5-9 urtekoetan eta 40-44 urtekoetan ere.

2.4.- Erabileraren bilakaera adin-tarteka eta generoaren arabera. Hona hemen



3. grafikoa. Euskararen erabileraren bilakaera adin-tarteka, urte multzoka. (%).

BALORAZIOA

✚ Adin-tarte bakoitzaren bilakaera nahiko koherentea da, oro har, gaitasunean, lehen hizkuntzan eta etxeko erabileran izandako joerekin:

- **Haurrak.** Aspaldiko urteetan nahiko egonkor dago %60 pasatxoan. 2001-05etik 2011-06ra erabilera guztira mantendu egin da baina umeek euren artean duten erabilera jaitsi egin da: %68tik %54ra. Igo dena da umeek nagusiekin duten erabilera. Puntu honi buruzko azalpen zehatzagoa emango dugu 3.2. atalean.
- **Gazteak.** 1983ko lehenengo neurketetatik hona adin-tarte honetan izan da igoerarik handiena (50 puntukoak): 83an %10 eta 2015ean %60. Hala ere, 2001etik 2017ra oso emaitza gorabeheratsuak izan dira: 2008an, %53; 2009an, %36; 2015ean, %60; 2017an %39. Gaitasunean, Lehen Hizkuntzan eta etxeko erabileran izan den bilakaera kontuan hartuta, logikoena epe horretan zerbait jaitea eta %45 inguruan ibiltzea zen.
- **Helduak.** 1990eko hamarraldian behea jo ondoren orduz geroztik gorako joera etengabea izan da. Neurketek ematen duten emaitzarik positiboenetako bat da. Berez, hainbesteko igoera izatea harrigarri samarra da kontuan izanda, helduen multzo honetan ez dela guztira gaitasunean eta etxeko erabileran ere hazkunderik izan. Ikusi egin behar da 2017ko jaitsiera konfirmatzen den hurrengo urteetan.
- **Zaharrak.** Zaharren bilakaerari erreparatuta, bere garaian beheranzko joera nabarmena izan zuen eta azkeneko 10 urte inguruan egonkortuta egon da baina 2017ko datua nabarmen baxuagoa izan da. Ematen du oraindik pixka bat behera egin behar lukeela, ez baitira iritsi helduek izandako emaitza bajuenetara eta gaur egungo zaharrenen ezaugarri demolinguistikoak (gaitasuna eta lehen hizkuntza) hobeak baitira euskararen aldetik, helduetatik zaharren multzo horretara datozenenak baino. Nabarmentzekoa da lehenengo bi neurketetan (1983 eta 1988an) adin-tarte hau izan zela emaitzarik altuena eman zuena eta, aldiz, 2007az geroztik berau izan dela erabilera baxuena agertu duena.

Zergatik etxeko erabilera jaitsi eta kalekoa igo?

Kaleko erabilerak kalean ibiltzen direnen erabilera neurtzen du. Errealitatea da adin-tarte euskaldunenek (ume, gazte eta heldu gazteek) kalean presentzia handiagoa dutela, gizartean duten pisua baino. Aldiz, gero eta erdaldunagoak diren multzoei (50 urtez gorakoek) kontrakoa gertatzen zaie: gizartean duten presentzia baino txikiagoa dute kalean. Adibidez, 2017an kalean neurtu ziren pertsonen %22 0-14 urte artekoak ziren baina Bergaran adin-tarte horretakoak biztanleen %13 dira. Aldiz, neurtu zirenetatik %17 ziren 65 urtez gorakoak eta adin-tarte horretakoak biztanleen %22 dira.


Bestalde, hobeto aztertu beharreko kontua da baina pentsatzekoa da kaleko erabileraren neurketak ez duela islatzen bere osotasunean inmigrazioaren fenomenoak. Hau da, neurtzen dugun eremuan eta giroan (txikiteoan, erosketetan, kale-giroan...) etorkinen presentzia proportzioan herrian demografikoki dutena baino nabarmen txikiagoa dela.

3.- HAINBAT DATU AIPAGARRI, PLANERA BEGIRA

3.1. Mende aldaketarekin joera aldaketa: Gazteetatik heldu gazteetarako hobekuntza eten eta beherakada etorri da. **Behar bezala erantzun ezin izan zaion fenomenoak: inmigrazioa.**

1981etik 2001era gazteetan euskara jakitea orokortu egin zen eskolaren ondorioz eta beste aldagaietan (lehen hizkuntza eta etxeko erabilera) ere egoera hobetzen zihoan, nahiz eta motelago.

2001etik 2011ra aldiz ia adin-tarte guztietan aurretik zetorren hobekuntza eten eta jaitsierak izan dira hiru aldagaietan. Salbuespen bakarra 30-40 adin-tartea da.



Adibidez, kanpo eraginik izan ez balitz, 2011n 34 urtez azpiko ia denak, %90, euskaldunak izan beharko zuketena baina 25-34 adin-tartean %70-72 dira.

Pentsatzekoa da horrek etorkizunera begira, jaiotze berrietan euskararen etxeko transmisioa murriztea ekarriko duela. Hona hemen, Eustaten arabera, jaiotze berrietan amaren naziotasunaren aldetik, azken 20 urteetan Gipuzkoan izandako bilakaera:

Gipuzkoan jaiotako. Amaren naziotasuna, atzerritarra (%)				
1996	2001	2006	2011	2016
2	3	7	14	20

Planari begirako kontuan hartzekoak:

- Etorkinen umeak. Multzo handi bat izango da etxean euskaraz ikasiko ez duena eta etxetik kanpo indargarriak beharko dituenak.


- Gazte multzo handi bat dugu (asko guraso izateko adinean) euskaraz ez dakiena. Zer egin dezakegun gutxienez ulermen maila oinarritzko bat lor dezaten?
- Aztertzekoa: gazte euskaldunen emigrazioak zer pisu eta zer eragin izan du?

3.2. Guraso gazteetan eta ume txikiengan hobekuntza. Bi inflexio puntu eta joera aldaketa: umeetan 5-9 adin-tartean eta euren gurasoetan (40-44 urtekoetan) .

Alboko grafiko honetan agertzen dugu Bergarako Herritarren 2011ko adinez adineko ezaugarri demolinguistiko nagusien egoera: ze portzentaia diren euskaldunak, lehen hizkuntza euskara hutsik dutenak eta etxean beti euskaraz egiten dutenak.



Honakoak nabarmenduko genituzke:

- Erdi-erdian (40-44 adin-tartean) dago inflexio puntua. Zaharragoek ezaugarri hobekak zituzten eta gazteagoek ere hobekak dituzte. Hain zuzen ere, 30-40 adin-tartea da inmigrazioaren eragina gorabehera jaitzierarik izan ez duen bakarra.
- Logikoa denez, 45-49 urtekoetatik 40-44koetara dagoen jaitziera bera dago horien seme-alabetan, 10-14 urtekoetatik 5-9koetara.



Gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera, 2011n.

Datu horiek 2011koak dira eta ez daukagu Eustaten 2016ko daturik txikiengan ondoren zer pasa den esango digunik baina guraso gazteenen bilakaera positibo hori konfirmatzen dute Udaleko Euskara Zerbitzuak herriko ikastetxeetan bi urteko umeen gurasoei galdetuz jasotako datuek eta hala ondorioztatu dezakegu kaleko erabileraren datuetatik ere.



Etxean beti euskaraz egiten duten gurasoak eta bi gurasoek umeari beti euskaraz egiten diotenak. Bi urteko umeen gurasoei galdetuta.

Umeen erabilera euren artean edo nagusi batekin berbetan doazenean. Kaleko erabileraren neurketa. Bergarako Udala.

Kaleko erabilerak honakoa adierazten du:

- Taldean umeak bakarrik dabilzanean euren arteko erabilera jaitzi egin da.
- Umeak nagusiekin doazenean euren erabilera goraka doa.

Bataren igoera bestearen jaitsierarekin konpentsatzen da.

Nola interpretatu hori? Pentsatzekoa da ume txikiak ibiliko direla kalean nagusiekin eta nagusitxoagoak (8-9 urtez gorakoak, 2011n 5-9 urte zutenak) izango direla, batez ere, nagusirik barik dabiltzanak.

Goian adierazitako inflexio puntuekin bat egiten dute adinek: ume nagusiek (2011n 5-9 urte eta 2016an 10-14 zituztenak) 40-44 urtekoen seme-alabak dira eta gaztetxoagoak guraso gazteagoenak.

Inflexio puntu horren eragile nagusia 1970eko hamarkadan indarra hartu zuen euskarazko irakaskuntza izan zen: 1971n sortu zen Aranzadi ikastola eta dozena bat urtetan bertako ikasle kopurua (eta, beraz, euskaraz ikasten zuen ikasle-kopurua) %50 ingurura iritsi zen. Gero, 80ko eta 90eko hamarkadan euskarazko irakaskuntza ikastetxe eta ikasle guztietara orokortu zen.

Planera begira kontuan hartzekoak.

Pentsatzekoa da ume txikiak eta beren gurasoetan dagoen bilakaera positiboa trasladatu beharko litzatekeela hurrengo urte hauetan 9-14 urtekoetara eta tarte horretan ere erabilerak gora egin beharko lukeela. Baina ondo zaindu eta elikatu beharreko kontua izango da.

Planean garrantzi handieneko multzoak izango dira bi horiek: ume gazteenak eta euren gurasoak. Apustua izango da nola lortu guraso gazteen belaunaldi berri hori izatea biziberritzearen motor.


Era berean, ikusi beharko da ea nola indar litekeen gaur egun gazteetan ezaugarri demolinguistiko kaxkarrenak dituen 9-14 urteko multzo hori.

3.3. Gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren arteko jauzia haur eta gazteetan.

Alboko grafikak erakusten digun fenomeno nagusietako bat honakoa da: haur eta gazte ia guztiak dira euskaldunak baina lehen hizkuntza euskara hutsa izan dutenak erdia pasatxo baino ez dira eta etxean euskara soilik erabiltzen dutenak %40 inguru. Zaharretan, aldiz, euskaldun guztiek zuten lehen hizkuntza euskara.

Horrek eragin nabarmena du kaleko erabileran ere, lehen hizkuntza euskara izatea baita euskaraz errazago egiteko faktore nagusia.


Bestalde, horrek esan nahi du haur eta gazte horiek eskola dutela euskararen erabilgune nagusi eta eskolaz kanpoko munduarekin osatu ezik, ez direla iritsiko euskarazko gaitasun egoki batera.



3.4. Kaleko erabileran, generoaren araberako datuak: mutil gazteen erabilera apala.

Neurketak egiten direnetik praktikan urte guztietan, emakumezkoek erabilera handiagoa azaltzen dute gizonetzkoek baino. Batzuetan 2-3 punturen aldearekin baina baita beste batzuetan 8-10ekoarekin ere.

Baina alde hori ez da berdina adin-tarte guztietan: zaharretan ez da apenas alderik; helduetan ere ez handia (3-6 puntu ingurukoa); umeetan 10 puntu ingurukoa izaten da eta alderik handiena gazteetan agertzen da.




Horixe da, gainera, neurketak urte gehienetan azaltzen duen daturik kezkarrietako bat: adin-tarte honetako mutilen erabilera baxua, hainbat urtez helduena baino bajuagoa izan dena.

Planerako kontuan hartzekoak:
 Ez da erraza asmatzen zerk eragiten du mutil gazteen erabilera hain baxua izatea, neskena baino 20-25 puntu bajuagoa. Faktore bat bada eskolaz kanpoko mundua erdaldunagoa izatea. Zer beste? Une honetako ahulgune nagusietako bat da eta heldu beharrekoa.

3.5. Elebidun hartzaileak multzo zabala adin-tarte batzuetan.

25-64 urte bitartekoen %19 elebidun hartzaileak dira euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztenak baina ulertzen dutenak; adin-tarte guztiak kontuan hartuta, berriz, 2800 bat dira.



Elebidun hartzaileak 2001-2011.

Planerako kontuan hartzekoak.
 Euskaraldia programa. Belarriprest izateko hautagai multzo handia.

4. LEHENTASUNA FINKATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK.

Udalek ekintza pila zabala antolatu ohi dute euskararen sustapena helburu. 2016an argitaratu zuen Jaurlaritzak “ESEP EAeko udalerrietan. 2014-2015eko jarduerak” argitalpena eta bertan urte horietan herrietan bideratutako 1800 jardueraren berri dakar.

Baina gero eta zabalduago dago lehentasunak finkatzeko beharra. Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordeak argitaratu zuen 2016an “Eta hemendik aurrera zer?” liburuxka, hurrengo 15-20 urteko perspektiban lehentasuneko ildoak zeintzuk izan beharko liratekeen jasotzen duena.

Beste entitate eta aditu askok ere heldu diote lehentasunen gaiari. Han-hemenka jasotakoak laburbiltzen ditugu jarraian, beti ere, jakinik gaia ez dela batere sinplea. Hona hemen zenbait irizpide, ez denak maila berekoak:

a) Erabilera indartzea da lehentasuna. Adostasun zabala dago honetan.

- “Gauza bat dago argi, nolana ere, mundu zabaleko aditu gehien azalpenetan: hizkuntzaren erabilerak definitzen du lehenik eta behin, ez ezagutzak edo iritzi-jarrerek, hiztun-elkarte elebidunen osasun-egoera.” (Mikel Zalbide, 2008)
- “Erabilerara iristeko erabileratik bertatik abiatu behar da hasieratik. Planteamendu zirkularra da, edo hobe esanda, espirala. Erabilera erabileratik bertatik elikatzen da.” (Euskaraldia programaren oinarriak)

Dakitenek euskaraz egitea da lehentasuna: hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimenak bideratzea, ohiko hizkuntza euskara izango den guneak sortzea, ditugun erabilera-guneak aberastea... Horiek izan behar dute planaren oinarri.

b) Euskal elebidunak sortzea helburu. Ahozkoa lehentasun. Honela adierazten du Pello Jauregi “Euskara eta gazteak Lasarte-Orian III 20 urteko bilakaera” liburuan:

Euskaraz “oso ongi” eta “nahiko ongi” mintzatzen direnak ezin dira “euskaldun” kategoria bakarrean bildu, batzuek eta besteek guztiz bestela jokatzeko baitute hizkuntzaren erabilerari dagokionez, bai eta hizkuntza-atxikimenduari dagokionez ere. (Jauregi, 2013)

Lehentasunezkoa, dugu euskaraz “oso ongi” hitz egiten dutenak (bestela esanda, euskal elebidunak) babestu eta ugaltzea.

Eusko Jaurlaritzak 2011n argitaratutako V. Inkesta Soziolinguistikoak ere berresten du iritzi hori: biak euskaldunak izanik ere, euskaraz errazago moldatzen diren euskaldunetatik %98k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute. Ostera, erdaraz errazago moldatzen diren euskaldunetatik %26k erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago.

Eta, ondorioz, ahal den eremu gehienetan (eremu formal zein informaletan), ahozko jarduna aberasteko bideak jorratu beharko dira.

c) Gazteak eta gazteekin harremana duten helduak dira lehentasun. Arrazoi ugari daude gazteak lehentasunezko giza-taldetzat jotzeko:

Eta lehenetsi behar genukeen giza taldea gazteen taldea da. Besteak beste arrazoiengatik: euskararen hazkundera gazteen eskutik etortzen jarraituko duelako; gazteen artean kontzentratzen direlako euskaldunen proportziorik nabarmen altuenak; euskaraz hazi, formatu eta hezitako belaunaldiak izango ditugulako; gazte euskaldun guztiak euskaraz alfabetatuak direlako; unibertsitate ikasketadun gazteen portzentajeak Europako altuenetakoak direnez etorkizuneko gizartearen gidari eta liderrak gazteen artean daudelako. (EAB, 2016)

Hala ere, ezin ditugu helduak ahaztu:

Esango genuke haur eta gazteen euskalduntzearen itxaropena helduen euskalduntzean datzala, eta oso bereziki haur eta gazteekin harreman zuzen eta ugaria duten helduen euskalduntzean, horiek direlarik, besteak beste, gurasoak, irakasleak eta begiraleak. Euskalduntzeaz ari garela, ez gara hizkuntza-gaitasunaz ari, hori ez baita gure irudiko euskalduntzearen gaina, izatekotan, erdibideko geltokia besterik ez da. Euskalduntzea, geure hitzetan, hizkuntza-jokaeraren euskalduntzea da, hots, solaskideen aldetik euskaraz hitz egiteko baldintza egokiak dituenen, euskaraz egiteko joera eta ohitura dituen pertsonaren jokabidea. (Jauregi, 2013)

d) Denbora faktore garrantzitsua da. Bizitzan denbora tarte handiena hartzen duen hark du lehentasuna hizkuntzaren ikuspegitik ere. Urtean behin egiten den gestioak (demagun Errenta Aitorpenak) eta egunero egiten dugunak (lankideekin berba egin) ez dute zer ikusirik lehentasunaren ikuspegitik.

“...hiztunek bertze hiztunekiko hizkuntza maizen eta harremanik estuenetan erabiltzen duten esparruak dira euskararen erabilera ahalbidetu, erraztu eta gizarte-araua bilakatzeko premiarik handiena dutenak. (Kasares, 2011)

Hala, adostasun zabal samarra dago haur eta nerabeetan “etxea, eskola, eskolaz kanpoko jarduerak” hirukoa lehentasunezko eremu izendatzerakoan. Eremu horiek dira, ikerketen arabera, komunikabide eta kultur-kontsumoarekin batera, haur eta gazteen hizkuntza erabileran eragin handiena dutenak.

Adinean gora egin ahala, familiak eta eskolak eragina galduko dute eta beste esparruek hartuko dute lehentasuna.

Helduetan, berriz, lan-munduak hartuko du ume eta gazteetan eskolak duen lekua.

e) Bizipen positiboak. Hizkuntzarekiko harremanetan pasatzen dugun denbora oso garrantzitsua izanik, ez da hori faktore bakarra: Harremanetan gauden hizkuntza orok sortzen ditu hiztunarengan bizipenak. Hala ere, bizipenok izan litezke positiboak edo negatiboak. Berebiziko garrantzia du euskara bizipen positiboekin lotzeak:

Ez badugu nahi gazteek euskara soilik hezkuntzarekin eta derrigortasunarekin lotzea, beharrezkoa genuke euskarari buruz duten/dugun ideia mudatzea. Euskarazko jarduna erakargarri izan behar zaigu, zerbait desberdina eskaini behar die euskarak gazteei, beste hizkuntzek ez duten xarma, komunikazio-tresna huts izatetik haratago, erabilgarritasunetik harantzago. Euskara gazteen ohituretara, disfrutatzeke erabiltzen dituzten eremuetara eta teknologia berrietara eraman behar dugu. Nolanahi ere, berriazko gazte politikak ez ezik, haien ekosistema osoan eragingo duten politikak bultzatu beharko dira. (EAB, 2016)

5.- 2018ko KUDEAKETA PLANEAN DITUGUN EGITASMOAK.

Jarraian 2018ko kudeaketa planean jasotako ekintzak datoz esparruz esparru. Ekintza multzo zabala da eta euretatik honakoak nabarmenduko genituzke, kasu batzuetan egitasmo berriak direlako eta beste batzuetan orain artekoaren azterketa sakona egitea eta programa birdefinitzea eskatzen dutelako:

- **Euskaraldia**, erabilera aktibatzeke nazio-mailako egitasmoa. Bere jiran bideratu nahi genituzke 2018an hainbat arlotako programak: merkataritza, lan-mundua, ikastetxeetako gurasoak, eskolaz kanpoko mundua...
- **Eskolaz kanpoko arloa euskalduntzeko egitasmo berria**: kirola, aisia... Lehentasunezko arloa izan da azken urteetan eskolaz kanpoko mundua: kirola, aisia... Oro har, bilakaera positiboa izan da baina oraindik hutsune nabarmenak ditugu bereziki kirol batzuetan edo bestelako jarduera batzuetan. Egitasmo berri bat jarri nahi dugu martxan esparru horietan jauzi bat eman eta eskolaz kanpoko mundua euskararen arnagune eta indargarri izan dadin.
- **Udal barrurako plan berria**. 2017an amaitu da aurreko plangintzaldia. 2018-22 aldirako plan berria egingo dugu.
- **Irakaskuntza. *Berbekin programa***, ikastetxeetan ikasgai guztietan ahozkoa indartzekoa. Aurten amaituko da ikerketa-proiektua. Aurrera begirako bidea zein izango den finkatuko dugu.
- **Euskara maila apaleko ume eta gazteentzako eskaintza**. Urte asko dira bideratzen dihardugula. Orain artekoa baloratu eta etorkizunerako ildoak finkatu nahi dira.
- **Euskalduntze-alfabetatzea**: Auzoko... Hainbat urtez bideratzen dihardugu baina zailtasunak ditugu jendearengana iristeko. Inmigrazioari sendoago erantzungo dion egitasmo sendoago baten beharra ikusten dugu.

2018ko kudeaketa-planeko egitasmoak

Esparrua	Ekintzak eta adierazleak
1. Esparru artekoak	a. Euskaraldia – 11 egun euskaraz programa, euskararen erabilera aktibatzekeoa. Nazio mailako egitasmoa. Informazio osagarria HEMEN . b. Aldi bereko itzulpenerako tresneria lagatzea. Herriko entitateei lagatzen zaie bilera eta batzarretan erabiltzeko. c. Udalaren egutegia argitaratzea. d. Jardunentzako diru-laguntza.
2. Irakaskuntza	a. Berbekin programa, ikastetxeetan irakasgai guztietan ahozko berbeta indartzea helburu duena. b. Ikastetxeei aholkularitza, gurasoak eta ikasle gazteak sentiberatu eta aktibatzeke: gurasoen Euskara batzordeak, ikasleen euskara batzordeak... c. Gu ere bertsotan programa. LHko bi ikasmaitan. Astean behingo bertso-lanketa. d. UEMAren Hezkuntza-programa, ikasleei herriko hizkuntza errealitatea eta soziolinguistikazko oinarrizko kontzeptuak azaltzeko. Material desberdinak ikasmaitaka. e. Euskara maila apalekoentzako errefortzu-saioak, eskola orduz kanpo: HH, LH eta DBH. Astean 2-4 ordu. (Jardun, Udal Euskaltegia, ikastetxeak). f. LANEKIrri dirulaguntzak, Lanbide Heziketako materiala euskaratzeko. g. Herritarrei dirulaguntzak: UEUn eta Idazle Eskolan parte hartzeagatik.
3. Euskalduntze-alfabetatzea	a. Udal Euskaltegian ikastaro aukera zabala. Ikastaro bereziak: etorkinentzat, Hika lantzekoa, bertako euskara lantzekoa... b. Ikasitakoa praktikatzeko aukera, Berriketan programa (Jardun). c. Auzoko programa, euskaratik urrun daudenak euskarara gerturatzeko. Bereziki, etorkinei begirakoa, (Jardun). d. Herritarrentzako dirulaguntzak, euskaraz ikasteko.

Esparrua	Ekintzak eta adierazleak
4. Familia	<ul style="list-style-type: none"> a. Guraso izan berriak sentiberatzeko materialak: aholkuen biorrikoa, kantu-liburuxka, CDa, HAZI-HEZI aldizkaria... b. Haurdunak sentiberatzeko materialak: liburua eta DVDa. Emaginak banatzen die. c. Euskarazko produktuen katalogoa. Eskola-umeen gurasoei banatzen zaie Gabon aurrean..
5. Administrazioa	<ul style="list-style-type: none"> a. Erabilera bultzatzeko plan berezia. Aurten berrituko da. Zenbait helburu: enpresen kontratazioetarako hizkuntza irizpideak finkatu eta jarraipena egitea, hornitzaileekiko harremanak euskalduntzea (UEMAren lanketa), langileen ahozko jardunean euskara sustatzea... b. Udalaz aparteko administrazioak: Osakidetzarekiko harremanak euskaraz kanpaina (UEMA-bailara).
6. Informazio komunikazio teknologiak	<ul style="list-style-type: none"> a. Bergarako hiribilduaren 750. urteurrena. Euskarazko Wikipedia Bergarako gaiez hornitzea.
7. Esparru sozio-ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> a. Idazlaguna programa: dendariei kartelak euskaraz jartzen laguntzeko boluntarioak.Sentiberatzea. Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina. b. Bergarabizi euskaraz koordinazio gunea: merkataritzakoak eta euskalgintzakoak. Euskaraldiarekin uztartuko da. c. Zenbait banketxerekiko hitzarmenak (UEMAk): Laboral Kutxa, Kutxabank. d. Establezimendu komertzialentzako zuzenketa eta itzulpen zerbitzua eta material prestatuen eskaintza.
8. Esparru soziokulturala	<ul style="list-style-type: none"> a. Udalaren kirol eskaintza (Agorrosineko ikastaroak...) euskaraz izatea bermatu. b. Kirol klubek jarduna euskalduntzeko egitasmoa: formazioa, entrenamendu eta partiduen jarraipena, diru-laguntzetan %10 hizkuntza erabileraren arabera. c. Aisia: Ludoteka, Gazteleku eta abarretako jarduna euskararen aldetik eraginkorrago izateko formazio eta aholkularitza. d. Eskolaz kanpoko jarduerak euskalduntzeko egitasmo berria. Zehaztu gabea. Helburua: haur eta gazteen eskolaz kanpoko mundua euskaraz izatea.
9. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	<ul style="list-style-type: none"> a. Herriko toponimia arautu eta zuzen erabiltzea bultzatzea. b. Dirulaguntza: Badihardugu elkarteak.
10. Hedabideak	<ul style="list-style-type: none"> a. Tokiko hedabideak diruz laguntzea: Goienarekiko hitzarmena. b. Euskarazko aldizkariak harpidetzak bultzatzea: Argia, Gaztezulo, Beitu, Irria... c. Galdegazte programa. DBHko gazteak Goiena telebistan euren gogoko famatuak elkarriketatzen. Aurrez ikastetxeetan prestaketa.
11. Liburugintza	<ul style="list-style-type: none"> a. Koldo Eleizalde lehiaketak antolatzea: ipuin idatzia, ipuin-kontaketa, komikia, bertsoa, irratsaioa...